

Eraldatzen duen begirada

Etorkizunaren aurrean etsita edo gertuko pertsonen desengainatuta sentitzen garen bizitzako uneetan, bat-bateko eta ustekabeko zerbait gerta daiteke, guztiari zentzua eman eta etsipen hori poztasun eta are bake berri bihurtzeko gai dena, gure barruan eta kanpoan.

Batzuetan, hain esperientzia pertsonal eta sakona izaten da, ezen geure baitatik irten eta besteekin gure poztasunaren arrazoia partekatzeko adorea ematen baitigu. Denak berriro bizitzera animatzeko modukoa da ia, ez bakarrik bakarka, baita talde gisa ere. Nork daki hori ezin ote den gure misio bihurtu: barne eraldaketa baten ondorio den eta, era berean, gure ingurunea eraldatzen duen alaitasuna eramatea, hura berrituz.

Hala ere, hasierako bultzadaren aurrean, «mundua konkistatu» ahal izatearen sentsazio horren aurrean, errealitateari aurre egitea zaila da, eta konpromisoei eustea ere bai. Non aurkitu amore ez emateko eta beti alaitasun eta bake eramaile izateko indarra? Nola ez etsi gure inguruan gizateriak porrot egin duela dirudienean?

Lagundu dezake egoeren gaineko begirada ezberdin bat izateak, eta horrek esan nahi du egoera bakoitzean dagoen positibo guztia bilatzea, lañotasunik gabe, baina itxuretatik harago joanez eta ez etsitzeko indarra aurkituz. Konturatuko gara gauzei begiratzeko modua aldatzen badugu, begiratzen ditugun gauzak aldatu egiten direla. Mundu berritu baten idealaren aldeko eguneroko borrokan konprometitzea da kontua.

Indarra aurkitu dezakegu, gu bezala, *statu quo*-ra etsi beharrean, aldaketarako tresna izateko elkartzen diren pertsonekin elkartuz.

Bereziki une historiko honetan, funtsezkoa da batez ere geure baitan begiratzea, gure kontzientzia geure baitan entzun, une oro nola jokatu edo zer hitz partekatu iradokiko diguna, eta horrela besteengana hurbiltzen garenean, euren nahiak partekatuz, gizartea berritzeko bide berriak ireki ditzagun.